

## FAUNA PUBLIKOA

**“Gaur egungo  
gure politikariek  
ez dute jokatzeko  
Trantsiziokoek  
bezala”**

**Gaizka Fernandez Soldevilla,  
historialaria (Eldiario.es)**

## Bukle melankolikoa



Gorka Bereziartua Mitxelena  
@boligorria

PSEren eta Euskadiko Ezkerraren arteko fusioa du ardatz Gaizka Fernandez Soldevillak Sara Hildagorekin batera idatzi duen *La unión de la izquierda vasca* liburua. Gauza kuriosoa gertatu zait Eldiario.es-ek egin dion elkarrizketa irakurri bitartean: artikuluak Fernandez Soldevillaren irudiak bakarrik dakartza, baina zuri-beltzeko argazki higituak eduki ditut buruan bueltaka –aurpegi serioak bizar handiekilak, txaketa hortarak, kontrabandoko Winston zigarroak–, zeren, benetan, zahar usaina dario 1993an gauzatu zen aliantza hartaz egin duen berrirakurketa, existitu ez zen zerbaiten nostalgia biziko balu bezala. Existitu ez zena, alegia: EAJri hauteskundeetan gehiengoa kentzeko sendotasuna eduki zezakeen alderdi sozialista baskista bat.

Ez dugu PSCren antzekorik izan hemen eta Fernandez Soldevillak ez du nahi ere, Katalunian “problema” sortu dituelako. Hemen, Patxi Lopezen agintaldi loriatsua salbu –eta hori ere nola lortuta, enfin–, sozialisten funtzioa EAJ-aren makulu izatera mugatu da gehienetan. Badu historialariak horretarako ere justifikaziorik: “Herri-proiektu bat edukitzeko beharrezkoa da desberdinen arteko pakto bat”. Kanta ezaguna egiten zaizu? Izango da PSEk botere postu batzuk harrapatu nahi dituen aldiro jotzen duen musika delako.

Brocante politiko honetan ezin falta Espainiako Trantsizioa noski, *izquierda vasca* honek bere buruari begiratu eta oraindik gazte erakusten duen ispilu bakarrenetarikoa baita. Asmakizun berrien faltan, norbait izan ziren garaietan murgilduta dabil PSEren *intelligentsia*. Hau bai bukleta melankolikoa. ■

**EZ  
HANKA  
EZ  
BURU!**



EMAIOK!

ZANPAZAK!

ZINTZURRA  
BIHURRITU!



ADUR